

Xagun Artea

2010eko azaroaren 22a

Xagun aldizkaria

59. alea

Udazkena: gaztaina garaia



Udazkenarekin batera, ohiko gaztaina eta talo jatea antolatu zuten Basarte guraso elkartekoek, joan den azaroaren 6an. Eliz atarian izan zen ospakizuna iluntzean, baina aurrez Aizpe aldean ibili ziren herriko haur eta gurasoak gaztainak biltzen.

Udal hauteskunderen lehen itzulia eta hurrengo herri bilera

Datozen udal hauteskundeetarako zerrenda osatzeko prozesuan, lehen itzulia joan den azaroaren 14an egin zen. Parte-hartzea ehuneko 60tik gorakoa izan zen, eta boto gehien jaso zituzten 15 herritarrak hauek izan ziren hurrenez hurren: Joxe Manuel Oria (96), Aitziber Makazaga (75), Andoni Alustiza (52), Haritz Iztueta (49), Ion Muñoa (46), Itxaro Alustiza (40), Arantzazu Muñoa (37), Joxe Mari Telleria (35), Igor Ojanguren (26), Amaia Junkera (26), Arantxa Ruiz de Larrinaga (23), Andoitz Iztueta (21), Maria Jexux Mendizabal (19), Aloña Elorza (18), Haritz Eguren (16).

Datorren pausoa herri-bilera egitea izango da. Datorren azaroaren 28an, igandea, egingo da herri-bilera, eguerdiko 12etan.

Kultur astea herri-giro ederrean joan zen



Joan den urriaren 20tik 30era bitartean ospatu zen aurtengo kultur aste zabal eta oparoa: antzerkia, musika emanaldia, mendi-buelta minatan (argazkian), hitzaldiak, marrazki-lehiaketa, kantu-bazkaria, tortila lehiaketa (argazkian) eta beste hainbat ekintza izan genituen astebete pasatxo. Denak umore onean eta herri-giro bikainean ospatu genituen.



Azaroaren 12an Eusko Jaurlaritzako turismo arduradunek irisgarritasunaren ziurtagiriak eman zituzten. Euskal Autonomia Erkidegoan turismo arloan lanean ari diren hainbat zerbitzu eta establezimendu saritu dituzte, turismo-guneak guztiak iristeko moduan jartzeko egindako lanengatik. Horien artean Zeraingo Turismo bulegoa, Aizpitta eta Oiharte saritu dituzte

Ganaduak mendi larreetara edo partzone- rira igotzeko eskaeren garaia irekita dago

Herriko ganaduzaleek Gipuzkoako eta Arabako partzonerian edo herri larretan ganaduak eduki nahi badituzte, udaletxean eman behar dute izena. Datorren urtean, 2011n, Partzoneriko herri-lurretan ganadua erabili nahi dutenek abenduaren 30a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Zeraingo herri larreetara ganadua

bota nahi dutenek, berriz, abenduaren 17 arteko epea dute udaletxean izena emateko.

Izena emateko asmoa dutenek hainbat dokumentu eraman behar dituzte udaletxera. Lehenengo aldia dutenek honakoak aurkeztu behar dituzte:

-Nekazaritza Ustiakuntzako txartelaren kopia.

-NAN kopia.

-Ganaduen identifikazio agiria.

-Larreetara igoko den ganadu kopurua.

Aurrez ere Partzonerian edo herri-mendietan ganaduak erabiltzen badira:

-Larreetara igoko den ganadu kopurua.

-Abereen identifikazio agiria.

Foru Aldundiak gogorarazten duenez, izena eman gabe ganaduak herri-larreetan erabiltzeak diru-laguntzak galtzea ekar lezake.

Su ermandadearen batzarra

Su ermandadeak ohiko batzarra egin zuen azaroaren 21ean. Junta berritzea tokatzen zen eta orain honela geratu da junta: Elena Mendizabal (presidentea), Pilar Telleria (idazkaria), Etxaluze senideak (diruzain) eta lau bokal: Garmendia senideak, Gregorio Balerdi, Joxe Mari Apaolaza Olea eta Maria Angeles Goia. Hurrengo bilera bi urte barru egingo da, 2012ko azaroaren 18an.

Guraso elkartean kurtso berria

Basarte guraso elkarteak kurtsoari ekin dio. Hilabetero egiten den bilera hileko azken asteartean arratsaldeko 5etan egingo da Maixunen. Guraso batzuk guraso elkartetik irten dira eta berriak sartu; ondorioz, junta berria honela geratu da: lehendakari, Xabier Lazkanoiturburu; lehendakari-orde, Enara Sodupe; idazkari, Aloña Elorza; diruzain, Amaia Junkera; eta kultur etxerako Amaia Etxeberria

Ikastaroak eta obrak kultur etxean

Martxan dira dagoeneko Oa kultur elkartean antolatutako aurtengo ikastaroak. Asteartetan dantza egoten da, asteazkenetan yoga eta ostegunetan (7etan) bola-ikastaroa. Interesa dutenak oraindik gerturatu daitezke. Bestalde, segituan hasiko dira kultur etxeko barrualdea eraberritzeko lanak diru-laguntza bati esker. Liburutegia auzolanean hustu ondoren, dena prest dago eraberritzeko.

Garraztea, lapur-iskilara

Gaurkoan ere labur beharko du. Ez denboraz sobran gabiltza, eta ez gai handirik daukagu esku artean, hitzaspertu luzerik egiteko. Ia galdurik, zeharo galtzeko puntuan, dagoen hitza dugu gaurkoa. Badu, nolnahi ere, komentatzea merezi duen zerbait: erabilera zabalekoa izana da Zerain aldean, antza, eta orain dela mende-erdi pasatxo zeraindarraren artean gainbehera etorria dela dirudi.

Has gaitezen aurretik: zer da *garrazte* hori? Hiztegiara jo dugu, beste hainbatetan bezala, informazio bila. Baita eskuratu ere. Honela azaltzen du Euskaltzaindiaren OEH hiztegiak, labur eta xoil, *garrazte* hori zer den: "Cierta escala rústica (un palo largo vertical con unos palos menores clavados a él horizontalmente)". Besterik ere esaten du hiztegiak. Hitz hori non jasoa den, alegia, Nafarroan jasoa du OEHk *garrazte* hori. Konkretuki, Larraun aldean. Beste inon erabiltzen denik, edo lehendik dokumentatua dagoenik, ez du esaten OEHk.

Orain badakigu, ordea, hitz hori ez dela Nafarroako Larraun alde horretakoa bakarrik. Zerainen ere erabili izan da *garraztea*. Erabili izan da lehen eta erabiltzailerik badu oraindik ere. Orain ere badira, alegia, hitz horretaz baliatzen dakiten zeraindarrak eta, tokatzen denean, erraz eta zehatz erabiltzen dutenak. Telleriko Joxe eta bere anaia Tomas dira horietariko bi. Gehiago ere izango dira tartean, akaso, baina ez ditugu topatu. Gogoratu bai, beste zenbaitek ere gogoratzen zuen hitza, Elena galdezka joan zaionean. Baina eguneroko jardunean ez du erabiltzen. Bere ahizpa Axunek, esate baterako, hala esan omen dio: "lehen erabiltzen genuen hitz hori. Enbor luze bat izaten zan *garraztea*, ziriak kruzatuz egindakoa. Guk (Otatzan) aspalditik ez dugu halakorik izan, baina Aldasoron bai; gerotxo ere bazan *garraztea* Aldasoron. Huraxe ebaltzen zuten, hain zuzen, sagarra biltzeko".

Aurreko batean, Zeraingo kultur

astearen jira-bueltan, mendi-ibilera txo bat antolatu du herriak. Hor ibili dira zeraindar zenbait, zahar eta gazte, hau ikusi eta hura ikusi. Tartean, makineteare ere egin diote bisita. Eta horra hor, non egin duten topo esku-iskilara luze batekin. Hala esan omen zuen berehala Telleriko Joxek: "*garraztea* da hori, sagar-biltzeko ebaltzen zan iskilarea".

"Ebaltzen zan". Orain ez da erabiltzen, antza denez, lehenengo moduan eta graduatan. Galdezka ibili da Elena, 60 urte inguruko zeraindarreri (baita 50 urte ingurukoei ere) hitzaren berri ba ote duten. Honela dio Elenak: "galdetu det *garraztea* ezagutzen ote den eta Xantik eta ingurukoek LAPUR-ISKILARA bezala ezagutzen dela esan didate, ez zutela inoiz entzun *garraztea*". Beste horrenbeste esan omen du Andoni Alustizak, Joxeren ilobak.

Argi dago, beraz, ondorioa. Lehen bizirik zegoen hitz hori, baina oso gutxi dira, gaur egun, hitz horretaz baliatzen dakiten zeraindarrak. Dakitenek ere oso gutxitan erabiliko dute seguruenik. Noiz? Aurrean *garrazte* bat topatzen dutenean. Une honetan, Elenak dakiela, oso *garrazte* gutxi daude Zerainen: horien artean bat museoan.

Betikora gatzoz. Hizkuntzaren barne-osaera, konkretuki bere hitz-altxorra, ez da definitiboa. Ez da betikoa. Ez da behin batean norbaitek sortu eta, handik aurrera, aldatu gabe herritarren artean bere horretantxe bizirik mantentzen dena, belaunez belauan transmitituz. Hitzak sortzen ari dira etaengabe, eta galtzen. Hori da legea. Hitzak aditzera ematen duen kontzeptua, prozesua edo, kasu honetan bezala, tresna bizirik dagoen artean, hitza ere ezaguna eta erabilia da. Tresna hori herritarren eguneroko bizimoduan aktibo dagoen artean, hitzak ere bizirik jarraitzen du, eta hala transmititzen da gurasoetatik seme-alabetara. Tresna bera eguneroko bizimoduan galduz doan neurrian (bere eginkizuna beharrezkoa ez delako edo eginkizun hori hobeto betetzen duen beste tresna bat zabal-



du delako), hitza ere galtzen hasten da. Eguneroko erabileran gero eta bakanago agertzen da, periferiko bihurtuz joaten da eta, gehienetan, hurrengo belaunaldiarentzat exotiko bihurtzen.

Zenbait kasutan, tresna exotikoa berriro bataiatzera jotzen da, ezagunagoa den enbor-izen baten adar gisa. Halako zerbait gertatu zaio, itxura guztien arabera, garai bateko *garrazteari*. Baserrietan gero eta *garrazte* gutxiago dago antza denez, eta hitz horretaz baliatzen den jenderik ere ez da apenas gelditzen. Egoera horretan, berezko izen zaharra gutxi ezagutzen da eta tresna-izen enborra edo zentrala indartzen. Enbor-izen zentrala eskilara edo eskailera da kasu honetan. *Garraztea*, egoera horretan, *eskilararen* satelite bihurtzen da. Eskilararen bariante edo mota: *lapur-iskilara*. Hala esan omen diote Elenari, Xanti Muñoak eta pareko beste zenbaitek: gaur egun, *lapur-iskilara* hitza nahiko zabaldua dago. Batak ez du ordea bestea kentzen: *garraztea* erabilera zabalekoa izana da Zerain aldean, antza, eta orain dela mende-erdi pasatxo zeraindarraren artean gainbehera etorria dela dirudi. Hori dela-eta, 60 urtetik beherrako zeraindarrek galdua daukate, zeharo edo nagusiki.

Besterik ez gaurkoaz. Ea hurrengoan patxara hobean gatozen.

Mikel Zalvide eta
Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

URRIA	al	ar	az	og	or	lr	ig
					1	2	3
Euria (l/m)	GUZTIRA: 126 l				0	0	4
C° altuena	ALTUENA: 29°				23	29	27
C° baxuena	BAXUENA: 0°				10	13	18
	4	5	6	7	8	9	10
Euria (l/m)	15	0	0	0	0	3	22
C° altuena	22	26	29	26	27	23	16
C° baxuena	13	7	14	18	19	21	13
	11	12	13	14	15	16	17
Euria (l/m)	3	0	0	0	0	3	4
C° altuena	17	17	19	20	16	15	15
C° baxuena	12	13	14	7	9	6	6
	18	19	20	21	22	23	24
Euria (l/m)	0	0	1	0	0	0	13
C° altuena	17	20	16	22	23	23	22
C° baxuena	5	4	3	2	7	8	10
	25	26	27	28	29	30	31
Euria (l/m)	10	0	0	0	15	4	29
C° altuena	14	18	23	24	19	16	19
C° baxuena	7	2	0	5	15	6	11

Hegoi-haize gutxi

Usozaleak eta perretxikuzaleak ez dira gusturuegi egongo aurtengo urriarekin. Hegoi-haize faltan, mendian goiz ederrak pasatzeko giro bikainak egin ditu, baina usoak eta onddoak ez dira sobrante izan. Euria ere egin du; guztira 126 litro, nahiz eta egun askotan ateri egin. Ehiz-aro onena ez da izan, baina sagar-urte bikaina bai. Beraz sagardo denboraldi oparoa izango dugula espero! Gutxienez sagar aitzakiarik ez da izango!



Rally RAC vasco-navarro herrian barrena



Azaroaren 20an, Rally RAC vasco-navarro historikoa (25 urte baino gehiagoko autoak) kotxe lasterketa herrian barrena pasa zen. Arratsaldean bi saiotan, Mutiloatik barrena etorri eta Aztiria aldera joan ziren kotxeak. Ziztu bizian pasa ziren gidariek ikuskizuna eman zuten.

Gazteen barrikotea abenduaren 11n

Datorren abenduaren 11an, gazteek barrikotea egingo dute soziedadean. Sagardoa, jana eta umore ona ez dira faltako iluntzetik aurrera. Afarian parte hartu nahi dutenek izena Xabi Dorronsorori eman behar diote.

Wifiari buruzko abisua

Azken aldian, herriko wifiak hainbat arazo izan ditu. Ustez konpondu dira arazo horiek guztiak eta martxa onean dabil zerbitzua. Dena dela, informatikoei abisua eman diete erabiltzaileei antibirusa egunera dezaaten, eta arazoei jarraitzen badute udaletxean horren berri eman dezaaten.

Odol-emaileen abisua

Odol-emaileen elkarteak odol-emaile direnei eskerrak eman, eta herritar guztiei dei egin diete odola ematera joateko. Hurrengo aukera, abenduaren 3an, ostirala, egongo da Segurako ambulategian arratsaldeko 6etan.